

EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXXVI

SAN SEBASTIÁN 15 DE MARZO DE 1917

N.º 1172



GOROSABEL

BETI esan oi da euskalduna gatik, egi penetan azkarrak izan ba dira, egipen oyek idazkietan azaltzen laburcho gelditu izan dirala beti.

Esaera ori egiya dala, begiyen aurrian daukagu. Gure asaba zintzoak egipen gogoangarriak egin zituztela ¿nork ukatu? Baña, era berrian ¿non dira idazti edo kondaira, egipen ospetsu oyek azaltzen diranak?

Aotik ao, gurasotik semeetara zenbait berri irichi izan dira, bañAn idazti, kondairatu, ezer ez edo ezerez'en antzekoa.

Eta alare zarretatik gazteetara lotu bear dan lokura maitagarria sendotzeko, gazteak jakin bear dituzte acaben egipen gogoangarriak. Eta jakingo badira, idatzi egin biarko.

Uste orretakoa zan, ikusten danez, Gorosabel, kondairatzalle trebia. Guchi izan badira ere sortu izan dira euskaldun jatorrak, egi au, bere benetan ezagutu izan dutenak, eta ayen bitartez lengo egipen zarbatzuek jakin ditugu gure acaben izen maitetsua goratzeko.

Tolosar trebia zan Gorosabel argidotarra, ta bere trebetasuna Gipuzkoa'ko egipen gogoangarrik biltzen, antolatzen, eta argitaratzen erabili zun.

¿Zenbat uri'tako berri beti betiko galduko ziran Gorosabel'ek jaso ez balitu? ¿Zenbat gertaera illunpian geldituko ziran Gorosabel'ek argitu ez bazitun bere lan egokiakin?

Gorosabel bezelako gizonak biarrekuak dira lenago, orain eta beti.

Goyenian jarri zagun bada bere izena, ispillutzat bezela izan dezaten gizaldi guzietako euskaldunak